

**EKAINAK 19, MOBILIZAZIO EGUNA**  
**Kalera aterako GARA! Lehenik bizitza!**  
**- IRIZPIDE GIDA -**

Irizpide Gida honen bidez ekainaren 19ko mobilizazioa egunari begira, arratsaldeko herrietako mobilizazioak antolatzeke oinarritzko irizpide eta ideiak proposatzen ditugu, herriz herri antolatuko diren mobilizazioetarako oinarritzko irizpide gisa.

**Zergatik mobilizatuko gara?**

*Luzeak egin zaizkigu egunak. Ikusezina den zerbait gure egunerokotasuna goitik behera zeharkatu du etanormalitatea hautsi. Dagoeneko gauzak aldatu dira eta ez gara lehengora bueltatuko. Berdin zaigu, ordea, guk ez dugulako nahi aurreko normalitatea, guk aurrera egin nahi dugulako.*

*Sistema kapitalista – heteropatriarkal - arrazista – ekozidak - kolonialista eraman ditu gure bizitzak kolapsora. Krisiak aldaketa garaiak eta aukeren momentuak omen dira. Euskal Herria. XXI. Mendea. Bizitzak sustengatzeko gure burua gobernatu nahi dugu, erabakiak hemen hartu gehiengoan araberako politikak egiteko. Eredu sozio-produktibo berria ezinbestekoa da, erabateko norabide aldaketa exijitzen dugu. Ez gara gutxiagorekin konformatuko.*

*Errealitate berria aldarrikatu nahi dugu. Orain arteko norabidean segitzea jasangarria dela pentsatzea utopia neoliberala da. Bizitzak erdigunera/ Bizitza lehenik*

- *Eskubide guztiak guztiontzat*
- *Lanak berrantolatu*
- *Babes Sozialerako sistema indartu. Osasuna eta zerbitzu publikoak indartu*
- *Kapitalak ordain dezala*

**Zer aldarrikatuko dugu?**

Karta Soziala Greba Orokorrean egindako aldarrikapen taula berritzeko prozesuan ari da. Lan, pentsio eta bizitza duinaren aldeko oinarritzko aldarrikapenekin batera, COVID-19aren pandemiak agerian utzi dituen beharrak aintzat hartuko dituen.

Ekainaren 19ko mobilizazioari begira, honako hauek dira nabarmendu nahi ditugun aldarrikapenak:

- Zerbitzu publikoak garatu. Zaintza eta osasun baliabideen publikazioa, langile guztien subrogazioa eta finkatzeko salbuespenezko prozedura bat bermatuz.
- Zaintza eredu aldatu eta jaiotzatik heriotzara zaintza bermatuko duen kalitatezko zaintza sistema publiko, unibertsal eta doakoa.
- Pobrezia eta bazterketa sozialaren kontrako HELean planteaturiko neurriak: DSBEa eta EBa gutxieneko soldataren %100a eta etxebizitza eskubidea.
- 1080 eurotako gutxieneko pentsioa erretiroa hartua duten pertsonentzat.
- 1200 euroko gutxieneko soldata/35 orduko gehienezko lanaldia.
- Proposamen hauek finantzatzeko nahiz COVID-19aren ondorioz sortutako zor publikoari aurre egiteko, kapital-errenta eta enpresen irabazien gaineko zergen kontura izatea.

**Mobilizazio diseinua herriz herri**

- Ahalik eta herritar gehien parte hartzeari bide emango dioten mobilizazioak
- Herritarrak elkartzeko espazioa eskaini; anitzak, erakargarriak eta parte hartzaileak izateko bokazioz.
- Gune anitzak eraiki, herritarren egoera emozionalari arreta jarritz.
- Mobilizazio eskaintza anitza, aldarrikapena, komunitate-sena eta aisialdia uztartuz.

### **Herriz herriko mobilizazioen antolaketa irizpideak**

- Arratsaldean zehar garatuko den mobilizazio espazioa antolatzen saiatu.
- Norberak dakarren aldarrikapena irudikatzeko espazioa eskaini, herriko plaza okupatuz, haima montatuz... beti ere adostutako manifestuaren eta aldarrikapenen ildoan.
- Aldarrikapen orokorrak zehaztu eta herriratuko ditugu herritarren eguneroko adibideak erabiliz, iulerterrazak izan daitezzen.
- Ekimen eta ekintza irudimentsuak, zabalak, baketsuak eta erakargarriak.
- Hizkuntza irizpideak zaindu, euskarari lehentasuna eman.
- Ardurak banatu eta ekimenak irudikatzeko, emakume eta gizonen arteko oreka bermatu.

### **Egin daitezkeen ekimenak**

Ekimen orokor eta bateratua EKIMEN OROKOR ETA BATERATUA: 19:30tan txalo/kazerolada antolatu baina kalean eta elkarrekin, balkoietatik plazarako jauzia irudikatuz

Ekimen orokorraren AURRETIK EDO ONDOREN egin daitezkeenak:

- Kale bira: ilada bat edo bi osatuz, ibilbide bat egin, megafoniaz lagunduta. Edo gure aldarrikapenekin harremana duten bi leku sinbolikoki lotu.
- Txirindula bira, gure aldarrikapenekin lotutako espazioak elkarlotuz: publikatzea eskatzen ditugun azpiegiturak, prekaritate guneak, gizarte segurantzaren eta abar
- Antzeppen formatuko ekimenak. Esaterako, Kapital-birusaz mozorratutako norbait edo norbaitzuk azaldu daitezke, Kapitala vs. Bizitza dikotomia irudikatuz.
- Herri apainketa eta propaganda banaketa. Aldarrikapenen txokoa muntatu, postit-margoekin herritarren aldarrikapenak jasotzeko
- Kontzentrazio, mosaiko erraldoi edo mannequin challenge-ak antolatu.
- Muralak margotu, "tiza"rekin kaleko horma eta lurralde aldarrikapenez betetzeko ekimen kolektiboak antolatu
- Pintxo pote musikatuak. kafe/zerbeza tertuliak, kalean mahaik eta aulkiak jarri eta datorrenari aurre egiteko tertuliak antolatu. (#ezduguahaztuko logikan)
- Sortzaileen ekarpena: musika, irakurketak, dantza...

### **Segurtasun neurriak**

- Segurtasunaz arduratuko den pertsona bat izendatu
- Pertsonen arteko 2 metroko distantzia bermatu. Beharrezkoa den tokietan, aulkiak jarri, lurrean markak egin...
- Distantzia bermatu ezin denean, maskarilak bermatu
- Gel hidroalkoholikoa eskuragarri jarri
- Fasearen arabera irizpide zehatzak

**Bitartekoak** <http://eskubidesozialenkarta.com/> webguneko HERRAMINTA KUTXAN aurkituko dituzue